

Kontrol ofiziala



882/2004 Araudiak (EE) (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:32017R0625>) eta 2017/625 Araudiak (EB) (<https://eur-lex.europa.eu/eli/reg/2017/625/oj>) **oinarriak ezartzen dituzte kontrol ofizialak egiteko** eta elikagaien eta pentsuen inguruko legeria eta animalien osasunari eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko araudiak aplikatzen direla ziurtatzeko beste jarduera ofizial batzuk egiteko.

FAQ (Ohiko galderak) 2017/625 Araudiari buruzko berritasunak - ELIKA (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/elikakatearen-kontrol-ofizialari-buruzko-berriak/>)

Elikakatearen Kontrol Ofizialari buruzko oinarri orokorrak (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/kontrol-ofiziala/>)

Erauzketa Arrantzako Higienearen Kontrol Programa Ofiziala

Erauzketa-arrantzaren eta hari lotutako operazioen lehen mailako ekoizpeneko higiene-betekizunen **kontrol ofiziala** gai horretan eskumena duten agintariek egiten dute, **Erauzketa-arrantzaren lehen mailako ekoizpeneko Higienearako Kontrol Programa Ofizialak (PHPE)** ezarritako irizpideei jarraikiz.

PHPEren **helburu orokorra** da kontrolatzea erauzketa-arrantzako eta hari lotutako operazioen lehen mailako ekoizpenaren operatzaile erantzuleek betetzen dituztela indarreko lege-xedapen komunitario, nazional eta autonomikoak, erauzketa-arrantzaren eta hari lotutako operazioen lehen mailako ekoizpeneko arriskuen kontrolari eta higiene-praktika zuzenei buruzkoak.

Gainera, programa honek honako **helburu espezifiko** hauek ditu:

- Egiaztatzea operatzaileek higiene-praktika zuzenak erabiltzen dituztela arriskuak murrizteko (biologikoak, fisikoak edo kimikoak), ekoizpenek elikagai-segurtasunari eragin diezaioketenak, eta arriskutsua izan daitekeen edozein kutsadura-foku kontrolatzeko.
- Arrantza-ontzien eta ontzi osagarrien higiene-baldintzak egiaztatzea, baita lehen salmentara arteko garraiobideena ere.
- Egiaztatzea arrantza-ontziek eta beren ontzi osagarriek indarreko araudiko egitura- eta ekipamendu-betekizunak betetzen dituztela.
- Kontrolatzea arrantza-ontzietan eta ontzi osagarrietan egindako operazioak ezarritako araudiarekin bat etorritik egiten direla.
- Egiaztatzea lehen mailako ekoizpeneko operatzaileek arriskuak kontrolatzeko hartutako neurrien erregistroak daramatzatela eta gordetzen dituztela, hala badagokio.
- Egiaztatzea itsaski-bilketarako guneetan egiten diren jarduerak higiene-araudia betetzen dituztela.

Akuikulturako Higienearen Kontrol Ofizialerako Programa

Akuikulturako higiene-betekizunen **kontrol ofiziala** gai horretan eskumena duten agintariek egiten dute, **Akuikulturako Higienearen Kontrol Ofizialerako Programak** ezarritako irizpideei jarraikiz.

Akuikulturako Higienearen Kontrol Ofizialerako Programaren helburu orokorra da kontrolatzea elikagai-enpresen operatzaileek betetzen dituztela indarreko lege-xedapen komunitario, nazional eta autonomikoak, lehen mailako ekoizpeneko eta hari lotutako operazioetako arriskuen kontrolari eta higiene-praktika zuzenei buruzkoak.

Gainera, programa honek honako helburu hauek ditu:

- Kontrolatzea akuikulturako lehen mailako ekoizpen-jardueren eta lotutako operazioen operatzaile erantzulea gai dela arriskuak murrizteko (biologikoak, fisikoak edo kimikoak), bere ekoizpenen elikagai-segurtasunari eragin diezaioketenak.
- Arriskuren bat ekar dezakeen edozein kutsadura-foku kontrolatzea, higiene-neurri eta -praktika egokiak hartuz.
- Ekoizpen-prozesuetan hasi eta sakrifiziora arte jarraituz zuzenean esku hartzen duten instalazio, elementu eta ekipamenduen higiene-baldintzak egiaztatzea, animalia biziak saltokiraino lekualdatzea eta arrain-ustiategien arteko garraioa barne.
- Egiaztatzea akuikulturako ontzi osagarrien higiene-baldintzak.
- Lan-operazioak kontrolatzea, produktuen higiena ziurtatzeko.
- Kontrolatzea elikagai-enpresen operatzaileak arriskuak kontrolatzeko aplikatutako neurrien erregistroak daramatzatela eta gordetzen dituztela.

Akuikulturako Higienearen Kontrol Ofizialerako Programa

(http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pcca_program3/es_agripes/adjuntos/Programa_Acuicultura_2016-2020_ver1-2016.pdf)

Arrantzari buruzko berriak

(<https://arrantza.elika.eus/molusku-bibalbioak-ustiapeneko-arrisku-mikrobiologikoak-kudeatzeko-gida/>)

Molusku bibalbioak: ustiapeneko arrisku mikrobiologikoak kudeatzeko gida

15 urtarrila, 2019

(<https://arrantza.elika.eus/eurobarometro-arrantza-produktuen-kontsumo-eb2018/>)

Arrantzako eta akuikulturako produktuen kontsumo-ohiturei buruzko eurobarometroa

3 urtarrila, 2019

(<https://arrantza.elika.eus/2017-akuikultura-plan-estrategikoaren-jarraipena/>)
2014-2020ko Akuikulturako Urte Anitzeko Plan Estrategikoaren jarraipena

19 iraila, 2018